



**2016KO MAIATZAREN 31KO  
EZ OHIKO OSOKO BILKURA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamaseiko maiatzaren hogeita hamaikan, iluntzeko zazpiak eta laurdenetan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean, ez ohiko batzarraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Ane Irastortza Izagirre, Aitor Altuna Oiarbide, Begoña Bueno Barranco, Iñaki Estensoro Sarasola, Amagoia Naldaiz Mingo, Jaber Arrasate Aierbe, Azeari Andonegi Beristain, Ioseba Hernandez Madinabeitia, Marian Zufiria Apeztegia, Imanol Aran Barandiaran, Leire Mendia Arana eta Urtzi Iruin Arruti.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

**I.- 2016KO EKAINAREN 26KO HAUTESKUNDE MAHAJETARAKO MAHAIKIDEAK AUKERATZEKO ZOZKETA.-**

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, Eguneko Gai Zerrendako puntu bakarrari ekiten zaio, 2016ko ekainaren 26an egingo diren Espainiako Gorte Nagusietara Hauteskundeak direla eta Hauteskunde Mahailetako partaideak aukeratzeko zozketari hain zuzen ere, Hauteskundeetako Erregimen Orokorreko Lege Organikoaren 26.4 artikulua xedatukoaren arabera.

Zozketa, horretarako prestatutako informatika programa baten bidez egiten da, datuak Lazkaoko hautesle zentsutik hartzen dira, Instituto Nacional de Estadística erakundeak bidalitako CONOCE programatik hain zuzen.

Zozketaren ondoren Lazkaoko Udalerrian eratuko diren 6 mahailetarako presidente eta bokalak aukeratu dira, titular nahiz ordezkioak, hauen datuak horretarako prestatutako orrietan jasotzen direlarik.

**II.- BILERAREN AMAITERA.-**

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zazpiak eta hogeita bost direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

